NERE IESU TXIKI MAITE-MAITEA.

Aritz-adarrean, kulendriña dantzan,  
esku txuri politean lorea...

Zeru goietatik ikullu baterá  
etorri da Zeruko Erregea...

—Zergatik ote-da? argatik ote-da?  
galdezka dabil jendea...

—Zergátik ote-dan? argatik ote-dan?  
Zuregatik gizon doakabea.

Aritz-adarrean kulendriña dantzan,  
esku txuri politean lorea...

Aragiz jantzita etorri zaigula  
Jaungoiko illezkorraren Semea...

—Zertara ote-da? artara ote-da,  
galdezka dabil jendea...

—Zertara ote-dan? artara ote-dan?  
BEGIRA BI BESOAK GURUTZEAN.



## ASIKO NAIZ ORAINGOAN

(1935 - Abendua - 2)

Asiko naiz oraingoan,  
 pekatariak, esaten,  
 zergatik dagoan, Jaungoikoa  
 aurtxo txikirik Belen'en.

Bein batean  
 txingurri bat  
 arro zebillen Eden'en :  
 " Aundiagorik nor emen ? ".  
 —Ja-ja-ja-ja...

Asiko naiz oraingoan,  
 pekatariak, esaten,  
 zergatik dagoan Jaungoikoa  
 narru bixian Belen'en:

Bein batean  
 ollo soil bat  
 karakaz zebillen Eden'en:  
 "Apañagorik nor emen?".  
 —Ja-ja-ja-ja...

Asiko naiz oraingoan,  
 pekatariak, esaten,  
 zergatik dagoan, Jaungoikoa  
 orren ixilla Belen'en:

Bein batean astotxo bat  
 arrantzaz zebillen Eden'en:  
 "Jakintsugoriknor emen?".  
 —Ja-ja-ja-ja...

Asiko naiz oraingoan,  
 pekatariak, esaten,  
 zergatik dagoan Jaungoikoa  
 gizon egiñik Belen'en:

Begira Adan nun dabillen,,  
 gizontxo argal izan arren  
 JAUNGOIKO NAIRIK Eden'en.  
 "Aintza dedilla Jaunari  
 zeruan eta lurrean. Amen",

# x&YQM&

Mé r é t t o

P<sup>it</sup>

df=±^

e

A - si -ko naiz o - rain- go- an pe- ka- ta- ri-ak ,

fcfe

g B ^

•fe— » , - »-J\_\_\_\_\_

e- sa - ten, zer-ga-tik'da - go-an Jaun-gpi- ko - a

Hfe

&E&

SJL

J\_\_J\_\_7 «:

N^ →w^\_~^~j

gi - zon e - gi-ñik Be - le - nen Bein ba-te- an

I ^

fc

3\_?=  
£

txin-gurri bat pan-parroi-ke- ri- an ze- bi- llen:

&^^=S  
†

» fc \*=  
Ett osz

^ -

"Ni bezain aun-di nor e • men?" Ja - ja, ja - ja, ja - ja, ja - ja, <sup>≠</sup>  
rif.

4=£

ja-ja, ja-ja, ja- ja, ja- ja, ja-ja , ja-ja, ja-ja je



# Sfü ÑKolM?, KÍLiS-KoUf?

**W** tF ^ - fprf^EE^EEm

San Ni-ko-Las, k\* - lis\_\_ko-las; San ,Ni-ko- las txi

-v.^-----t-~~z~~-----«-----\*--^

ki- ya Gaur de- gu- la gu- re\_e-gu- na, txí -

^=F=^

\$=t

^ ^

ki- yok fes - ta de- gu- na.

**W=W**

San Ni- ko- las, ki -

**J-T-J**—^^^

ÍF=+

**T i " • \* 4** tr:

lis\_\_ko- las, San Ni-ko-las

txi- ki- va.

- 2. San Nikolas txikiya,  
gure ganbaran aziya.  
Gure ganbaran zer dago,  
**Anare** Juana María? Ave ave María!
- 3. Dios te salbe! bakallo-jale!  
Bost eta sei amaika...  
Txirixorikan ez baídin bada  
igual dala lukainka.

## BELEN'GO AUR EDERRARI

(«Birjiña maite» bezela)

Belen'go Aur ederrari,  
 estalpe zartxo batean,  
 aingerutxo bi kantari,  
 Ama etorri artean:

*Bunbullun, bunhullun, bunbuUnera;*  
*hunhullun bat eta hunbullun bi...*  
 Aurtxoak munduan seaskarik ez;  
 zeruan urrez amabi.

Aurtxo txikia lo dago  
 aingeru biren erdiam;  
 aingeru biren erdian, eta  
 millaka inguru guztian.

*Bunbullun, bunhullun...*

Aurtxo txikia lo dago  
 aingeru birem erdian;  
 Amatxo zapi-garbitzen  
 Belen'go iturri garbian.

*Bunbullun, bunbullun...*

Amatxo iturrian dago,  
 Aurra lo dagon artean;  
 musu ta laztan jango du,  
 andik etortzen danean.

*Bunbullun, bunbullun...*

Au ere, neronek sortua da. Teatro-modura egitekoa: Jesus Aurra-  
 ren Belen'go gertaera bat: Aingeruak, Jesus Aurraren seaska zaitzen,  
 alegia, Ama Iturrian dan arte.

Doñua, errikoa du: Azkue'k nunbait bildua, eta «Birjiña maite» letra erantsia.

Nere letra, onomatopeiduna da: *bunbullurt* onomatopeia. Oso ritmikoa. Oin irukoteak ditu maiz; eta, ola, puntu batzuetan zortzi silaba ditularik, beste batzuetan amaika ere ba ditu, ritmo edefrean:

*Bunbullun, bunbullun, bunbullunera*

iru oin irukote eta bikote batean amaika silaba;

*zeruan urrez amábi*

iru oin bikotetan eta trinkotu batean, zortzi silaba.

Teatro bezela, lenengo bertsoan, escenaren erdian, seazka bat dago: Jesus Aurra lo, alegia; eta bi aingeru seaskaren bi aldeetan, dantza xume bat egiten, bi besoak tolestuta, gorputzaren balantzotxo bat, seaskaren ibilliaren antzera. Bigarren bertsoan, sortzi amar aingeru geiago, bi errenkadatan; bi aldetatik sarturik, ibilli gurutzetu bat egiten dute, konpasean, gorputza balantzatuaz berak ere, azkenean *bunbullun* kantatzean, seaskaren inguruan gelditzen dirala. Irugarrenean, danok seaska-inguruan dantza xumea. Laugarrenean, Ama —saskitxo bat buruan— iturritik etorki, alegia, seaskara irixtean, Aurra besoetan artu eta laz-tandu eta gora-gora jaso, ikusleai erakutsiaz.

## SAN NIKOLAS

Deun Nikola / zabiltz beti gurekin.  
Nikola Deun / zatoz gure lagun.

Deun Nikoía / lagun zakiguz beti.  
Nikola Deun / beti gure lagun!

- |  |   |
|--|---|
| 1. Ume abeslarien<br>laguna zera zu.<br>Txiki ikastol-zaleak<br>txit maite dituzu. | Emaiguzu ogia<br>osasurekin,<br>pozik bizi gaitezen<br>danok alkarrekin.                    |
| 2. Txikien adiskide,<br>zar agurgarria,<br>gaiztakeri gabeko<br>gure pozkarria.    | Poza da gogoaren<br>eguzki argia;<br>emazu gogo argi<br>ta bizi garbia.                     |
| 3. Gaiztakeri gaberik<br>zaitzeni bagaituzu,<br>betiko adiskide<br>izango gaituzu. | Garbi bizi, ta garbi<br>euskeraz mintzatuz,<br>Deun Nikola, euskeraz<br>zaitzagun aintzatu. |
| 4. Betiko adiskide<br>Nikola Deunaren<br>ta maitatzalle txintxo<br>lagun urkoaren. | Deun, izkuntza gozo ta<br>musu-gozoduna!<br>Umeen adiskide,<br>txikien laguna!              |
| 5. Maitatzeären ona<br>ogia danean!<br>Emaiguzu ogia<br>maitxo apalcan.            | 10. Umetxoei begira<br>saiguzu gaur, arren,<br>gero zurekin gauden<br>zeruetan. Amen.       |

Detm Nikola / zabiltz beti gurekin.  
Nikola Deun / zatoz gure lagun.

Deun Nikola / lagun, zakiguz beti.  
Nikola Deun / beti gure lagun!

JOLASEAN

Txitxi ta papa goxo  
mutil txiki batentzat  
Belen'en gaur jaio  
danarentzat.

Amatxok eman dit  
neretzat;  
bañan nik gorde det  
Zuretzat.

Aitatxok emam dit  
neretzat;  
bañan nik gbrde det  
Zuretzat.

Txitxi ta papa goxo  
Mutil txiki batentzat,  
Belen'en gaur jaio  
danarentzat.

Ta nola ez gorde  
Zuretzat,  
gaur jaio bazera  
guretzat?

## MONJA TXURIENA

Oraingo aldian esango degú.

Monja txufien kantua... (bir)

*La-raran : Doran Donsían Don (bir)*

—Ama : ekatzu jantzi beltxa,  
monja nai det-eta nik.

—JMonja beltzak Mendaro'n dira;  
ez dakit ango biderik.

*La-raran : Doran Donian Don...*

—Ama : ekatzu jantzi urdiña,  
monja nai det-eta nik.

—Monja urdiñak Begoña'n dira;  
ez dakit ango biderik.

*La-raran : Doran Donian Don...*

—Ama : ekatzu jantzi txuria,  
monja nai det-eta nik.

—Monja txuriak Txina'n dira;  
batel bat dijoa Pasai'tik.

*La-raran : DoranDonian Don...*

—Agur, amatxo; agurbetiko;  
Ama : ez egin negarrik.

—Agur, alaba; agur betiko;  
errezatu nigatik.

*La-raran : Doran Doniain Don...*

Batel txuri bat Txina'ra dua  
Monja txuriz beterik;  
Monja txuriz beterik, eta  
Izar eder bat Gidari.

*La-raran : Doran Donian Don;*

*la-raran : Doran Donian Don.*

## AMA, EKATZU NIRI...

(Araba'rako)

- 1) Ama, ekatzu niri yateko ogia. Gaur da Gabon! Amatzuk ogia pozik emon; pozik, pozik, pozik emon; emon, emon.
- 2) Aita, ekatzu niri edateko ura. Gaur da Gabon. Aitatxuk ura...
- 3) Amama, ekatzu niri yateko eltzaki. Gaur da Gabon. Amamak eltzaki.
- 4) Atita, ekatzu niri yateko okelea. Gaur da Gabon. Atitak okela.
- 5) Ixeko, ekatzu niri artuteko esne. Gaur da Gabon. Ixekok esnea.
- 6) Osaba, ekatzu niri yateko artoa. Gaur da Gabon. Osabak artoa.
- 7) Afeba, ekatzu niri lufezko katilu. Gaur da Gabon. Afebak katilu.
- 8) Anaya, ekatzu niri burdiñezko txali. Gaur da Gabon. Anayak txalia.
- 9) Aizta, ekatzu niri leyañezko azpil. Gaur da Gabon. Aizatxuk azpilla.
- 10) Neba, ekatzu niri galtzairuzko aizto. Gaur da Gabon. Nebatxuk aiztoa.
- 11) Mutil, ekatzu niri efeitako gaztain. Gaur da Gabon. Mutilak gaztañak.
- 12) Neskame, ekatzu niri gozo ta intxaur-saltsa. Gaur da Gabon. Neskak intxaur-saltsa.

## YOAN NINTZAN...

(Araba'rako)

- 1) Yoan nintzan suetera, ikusi neban katua. Katutxuak *miau-miau-miau*. Bigur beste aldera!
- 2) Yoani nintzan sapaira ta, ikusi neuzan usoak. Usotxuak *rup-a, rup-ni, rup*.
- 3) Yoan nintzan ikulura, ikusi neban bei zuria. Bei zuriak *ma-a-a*,
- 4) Yoan nintzan kortara ta, ikusi neban astoa. Astotxuak *traka-trakai-traka*,
- 5) Yoan nintzan txafit.eira, ikusi neuzan txafiak. Txafitxuak *kuřixk-kuřixk-kuřixk*.
- 6) Yoan nintzan etartera, ikusi neuzan txiteak. Txitatxuak *pipi-pipi-pi*.
- 7) Yoan nintzan atadira, ikusi neban txakuřa. Txakurtxuak *tau-tau-tau*.
- 8) Yoan nintzan lafakera, ikusi neuzan oloak. Olotxuak *karkara-karm-ka*.
- 9) Yoan nintzan solora ta ikusi neuzan idiak. Idixkoak *mu-u-u*.
- 10) Yoan nintzan lafara ta ikusi neuzan ardiak. Arditxuak *be-e-e*.
- 11) Yoani nintzan basora ta ikusi neuzan txoriak. Txoritxuak *txiru-lirurliru*.
- 12) Yoan nintzan mendira ta ikusi neban erbia. Erbitxuak *brixt-brixt-brixt*.



JOSTUNARENA

(Arataa'rako)

Ba det raik jostorratza,  
jostorratza ta (i)aria.  
Bigarko josiko det  
soñeko berri-berria.

*Tralala, trailala, la, la, la;*  
*tralala, tralala, la, lai.*

*Tralala, tralala, tralala, la;*  
*trulala, tralala, la, lai.*

Dendan Andre Joxepa,  
saltzen oial ta miesa;  
«Kana biko atal bat,  
eskerrez eman baleza».

*Tralala...*

Aspaldi den, txatxala,  
«Eskerrik-aso» il zala...  
Ekar eskura zillar,  
nai badeni mies-atala.

*Tralala,..*

Zillar-pixka bearrez,  
jostundegira negafriez.  
— Zer dezu, zer, txatxalá?  
— Déndan miesik emah ez.

*Tralala...*

— Egizu lan, txatxala,  
eta izan jostun azkarra ;  
jostun azkar bazera,  
emango dizut zillarra.

*Tralala,..*

Xixta-xaxta azkarki,  
azpildu, josi, ebaki,  
gure nexka bixkorrak  
lanean ederki daki.

*Tralala...*

Atoz, atoz onera;  
langille azkarra zera;  
zillar zuri aundi bi  
nik emango alogera

*Tralala,..*

Dendan Andre Joxepa  
saltzen oial ta miesa...  
«Kana biko atal bat  
dirutan eman baleza?».

*Tralala,..*

Nik ba det jostorratza,  
seda-miesa ta aria...  
Jaietan jantziko det  
soñeko berri-berria.

*Tralala, tralala, la, la, la;*  
*tralala, trailalu, la, lai.*

## KATO BELTXARENAK

Oraingo aldian esango degu  
kato beltxareni kantua... (bir)  
*Lararan, dorandonian-don;*  
*lararasni, dorandonian-don.*

Kato beltxak bi ume ditu;  
biok dira bel-beltxak;  
bata neretzat izango da, ta  
bestea, berriz, zuretzat.  
*Lararan, dorandonian don.*

Kato gorririk ez det nai, eta  
gorde itzazu zuretzat;  
kato gorririk ez det nai, eta  
zer izango da neretzat?  
*Lararan.\*.*

Kato beltxik ez det nai, eta  
gorde itzazu zuretzat;  
kato beltxik ez det nai, eta  
zer izango da neretzat?  
*Lararan...*

Kato txuriak sei ume ditu;  
seirak txuri-txuriak;  
erdiak neretzat izango dira,  
zuretzat beste erdiak.  
*Lararan...*

Kato gorriak lau ume ditu :  
laurak gorri-gorriak;  
bi neretzako izango dira,  
zuretzako beste biak.  
*Lararan...*

Kato txuririk ez det nai, eta  
gorde itzazu zuretzat;  
kato txuririk ez det nai, eta  
zer izango da neretzat?  
*Lararan...*

Asto zar bat nik ba det, eta  
ez det nai nik neretzat;  
kato politik nai ez duanak  
astoa beza beretzat.  
*Lararan, doran-donian-don;*  
*lararan-doran-donianirdon.*

XAGU. TXIKI

(Erderazko «Ratoncito» bezela)

Xagu txiki, xagu maite,  
zulotxean egon zaitte;  
xapik ikusten bazaitu,  
*kris-kras* jan egingo zaitu.

—Ez nau jango  
—Jangozaitu! etab.

Xagu txiki, begi-bixar:  
etzaitzela kutxan sar;  
amak ikusten bazaitu,  
artxek arrotuko zaitu.

—Ez nau arrotuko!  
—Arrotuko zaitu!

Xagu maite! xagu laztan!  
etzazula gaztarik jan;  
aitak ikusten bazaitu  
bertara-bertan ilko zaitu.

—Ez nau ilko!  
—Ilko zaitu!

Xagu maite: etzazula  
amonareni gona zula;  
baldin zulatzeu badezu,  
konpondu bearko dezu.

—Ez det konponduko!  
—Konponduko dezu!

Xagu kaxkar, koxkor, kuxkur :  
begira intxaurrikan lapur;  
baldin lapurtzen badezu,  
gaitzak artuko dituzu.

—Ez ditat artuko!  
•—Artuko dituzu!

Xagu kuxkur, kaxkar, koxkor :  
begira zepoan eror;  
baldin erortzen bazera,  
betiko galdua zera.

—Ez naiz galduko!  
—^Galduko zera!

Xagu kuxkur, koxkor, kaxkar :  
eztitan ez ankarik sar;  
baldini sartutzem badezu,  
an ito bearko' dezu.

—Ez naiz itoko!  
—Itoko zera!

Xagu litxar, xagu xikin :  
ez erregalorik egin;  
amak usaitzen bazaitu,  
atzean xat joko zaitu.

—Ez nau joko!  
—Jokozaitu!

Xagu maitea : nun zeran?  
Guazen txintxo eskolara.  
Txintxo ikusten bazaitu,  
amatxok maiteko zaitu.  
—Ez nau maiteko.  
'—Maiteko zaitu.

## XAGU TXIKI-TXIKI BAT

Xagu txiki-txiki bat,  
 bi belarriak xut,  
 emen muturra xaxta  
 eta an muturra xuxt,  
 pozik asko zebillen,  
 sukalde utsean,  
 etxekoandrea lotan  
 zegon bitartean.

Eltze bat arkitu zun,  
 an, bazter batean,  
 erdiraño betea;  
 ez bait-zezakean  
 jakin zertaz beterik  
 ote-zegokean.

Usaia gozoa du,  
 ezin gozoago;  
 ortz-artetik lerdea  
 dariola dago.

Eztia bait-zan, bada,  
 eltzean zegona...  
 munduani onik bada,  
 uraxen bai ona!

Eskutxoa luzatuz,  
 an dabil tentari  
 ertz-ertzean oin biak  
 lotuz eltzeari.

Bañan, irrixtatuta,  
 or jausten da tupust!  
 ta eztitan sartu da,  
 bi belarriak xut!

Eztitan izan zuan  
 gaxoak iltzea;  
 eta aren illobia  
 izan zan eltzea.

Eztitan izan zun, bai,  
 gaxoak erio...

Gozoenak askotan  
 miña bait-dario.

## EL PAÑUELO POR DETRAS

(«El pañuelo por detrás, cris-cras  
 ni lo ves ni lo verás, cris-cras»).

Zapitxuri atzetik, tik tik;  
 eztaukazu ikusirik, tik tik,

ASTOARENA

(Poxpoliñentzat) («Uso txuria» tazelat)

Paradisuko atean  
 abere danak batean,  
 pozik zebiltzan Adan'engandik  
 beren izenak artzean...  
 Paradisuko atean  
 abere danak batean.

—Ia, orain, kukurmku :  
 zuk izena nola dezu?  
 —Esango dizut berealáxe :  
 «ollarra» esan didazu...  
 —Ondo dago, kukurruku;  
 zuk izena orla dezu.

Nola da, bera-iz, zurea,  
 kurrin-kurrinka nerea?  
 —Esango diot berealaxe :  
 nerea, Jauna, «urdea»...  
 —Ondo dago, Jaun urdea,  
 orrelaxe da zurea.

—Etorri ona, kakari;  
 nola esan dizut zuri?  
 —Esango diot berealaxe :  
 «ollóa» esan dit neri...  
 —Ondo dago, kakakari;  
 orlaxe esan dizut zuri,

—Eta, zu, lepo-gizena;  
nola da zure izena?

—Esango dibt berealaxe :  
neri esani dit «zezena»...

•—Ondo da, lepo-gizena :  
orla da zure izena.

—Esne ta adardun gurea :  
nola dezu zuk zurea?

—Esango diot berealaxe :  
«beia» da, Jauna, nerea...

—Esne ta adardun gurea :  
orla dezu zuk zurea.

—Kurrin-kurrinka nerea :  
zuk, berriz, nola zurea?

—Lotsa naiz, bañan, aitortuko det:  
neri esanj dit «urdea»...

—Jlz lotsik izan, kurrin-kurrintxo;  
izena dezu «urdea»;  
urdaia gozo, ordea.

—Belarri-luze, mukizu:  
ia, zuk bai al dakizu?

—Neri, ai! Jauna... aztu... aztu...  
aztu egin zait, barkatu...

—Ondo dago, Jaun mukizu :  
«astua» zera gaurtik zu.

Paradisuko atean,  
abere danak batean,  
pozik zebiltzan, Adan'engandik  
beren izenak artzean.  
Paradisuko atean  
abere danak batean,

TXINGURRIAK

(Llongueras-Lekuoná)

Txingurri txiki-txikiak udaran,  
gari-garai nola dan,  
lenen argi boladan  
anka-puníani irten eta etxetik  
*tik-tik-tik, tik-tik-tik,*  
eten gabeko illaran,  
batetik, bestetik,  
auzoko gari-pillara,  
batetik, beste tik,  
juten dira bertatik.

Beren etxetik irten-da bidean  
lagunak topatzean,  
belarri ertz-ertzean  
«egun on» esan ondoren alkarri,  
*tzi-tzi-tzi, tzi-tzi-tzi,*  
besoz katigu onela  
batetik bestetik,  
langille onak bezela,  
batetik, bestetik,  
jo oi diote lanari.

Gari-zama makur daramatela,  
bai ixil dijoztela!  
—nola nai den bestela?—  
—Aizpatxoak, gaur nereak egim din;  
ai, ezin! ai, ezin!  
Dal-dal dizkiñat aztalak  
batetik, bestetik;  
bañan azturik daldalak,  
batetik, bestetik,  
egin zagun alegin.

Bidean euliaundi bat etzan-da  
 —sinistazan esan-da—  
 nunbait égin eztanda  
 ta antxen ikusi diñagu luzeki

*Ji-ji-jU j^ji-ji*  
 Bañani txintxuak bait-gera,  
 batetik, bestetik,  
 jaso dezagun etxera;  
 batetik, bestetik,  
 jan dezagun ederki.

Txingurri txiki-txikiak neguan,  
 aurten eta lenguan,  
 naiko gari genduan;  
 eta gero jan edan ta dantzari,  
*ri-ri-ri,ri-ri-ri...*  
 Udaran lan egin eta,  
*kHskitin, kraskitin,*  
 orain jo zagun krisketa,  
*kriskitin, kraskitin,*  
 dantzatzuz anak arin.

## TXINGURRITXOAK

(Gerraurrekoak) (JolasearJ)

Begira, baserritarra  
 Garillan  
 gariak jo-ta pillan  
 jartzen nola dabillan.  
 Ta txingurritxoak beren  
 kabitik,  
 tik-tik-tik

tik-tik-tik  
 •—soñean jantzi apañak-  
 aruntza, onuntza,  
 etxeko gari-larrañak  
 aruntza, onuntza  
 aztertzen or dabilta.



Dabiltzala, dabiltzala,  
 bidean,  
 larrañaren ertzean  
 lagun bat arkitzean,  
 itz-egiten belarrifa  
 dira asi :  
 psi-psi-psi  
 psi-psi-psi...  
 Ta igurtzirikan eskuak  
 aruntza, omuntza  
 ta aleturik galduruak,  
 aruntza, onuntza,  
 gariketan dabiltza.

Gari-ale bana ezin  
 ekarri,  
 bi or dabiltza larri,  
 «Ai!» esanaz alkarri  
 Au eramateko, neska,  
 ez naun gai,  
 ai-ei-ai!  
 ai-ei-ai!...  
 Anak makurtzen zaizkiñan!  
 aruntza, onuntza,  
 ots! elkarri laguntza!

Euli aundi gizen gizen  
 batek, zart!  
 ortxe ler egin dia bart;  
 otsa nik entzun> diñat.  
 Len kitarra jo oi ziguna  
 an., urrun,  
 run-run-run,  
 run-run-run-run,  
 orain or zegon etziña...  
 Aruntza, anuntza  
 ots! ba diñagu zeziña ;  
 aruntza-onuntza  
 ta negurako otuntza.

Bete ditugu ganbarak,  
 bete, bai.  
 Egin dezagun, ba, jai;  
 bizi gaitezen lasai.  
 Egin dezaiegun farra  
 alperrai,  
 ja-ja-jai!  
 ja-ja-jai!  
 Len jo ziguten adarra :  
 aruntza, onuntza,  
 orain aientzat negarra,  
 aruntza, onuntza  
 guk egin zagun dantza.

## EUZKADIKO MENDIAK

*Orimendi* tontofeko pagoaren puntan,  
puntaren-puntan.

Ori'ko txoria kantari :  
txiruliruli-txiruliruli  
nork kantatuko ote-du soñutxo ori.

*Aizkofi'ko* tontofeko arantzaren puntan,  
puntaren-puntan,

Erbi-iñudea dantzari  
trikitrikiti - trikitrikiti,  
nork dantzatuko ote-du dantza ariñ ori.

*Anboto'ko* tontofeko arkaitzaren puntan,  
puntaren-puntan,

Sorgiñak kontu kontari:  
ujujujuju-ijijijiji  
nork ixilaziko ote-du algara ori.

*Araiar'ko* tontofeko Lafunañi puntan,  
puntaren-puntan,

Pernandota bertzolari:  
zuk neri ziri, nik zuri ziri,  
iñor onduko ote-du ziriket'ori.

*Gorbeia'ko* tontofeko Gurutzaren puntan,  
puntaren-puntan,

artzaitxo bat albokari :  
ñiruñiruñi-ñiruñiruñi,  
nortzuk sortua ote-da soñutxo ori.

*Altobiskar* tontofeko lepo-lepoan, lepo-lepoan,  
Efoldan turutalari :

tuturututu-tataratari,  
Efoldan alpefik duzu turut'ots ori.

TXORITXOEN KANTAK

Baso beltz ezkutuan,  
txoritxoak abestutzen  
eta bazterrak poztutzen  
nola bait duten jarduten,  
ots! nork entzun nai duan!

Mayatzaren mandatari  
dator enara ariña;  
egazpeani bait du kabi  
igaz berak egiña.  
Eztarri leunaren jabe  
abesteni du ezirik  
bixirik:  
titxrritx, titxrritx  
titxrritx, titxrritx.  
«Jeiki-jeiki nagı gabe,  
goizean-goiz-goizetik».

Txorietan buruzagi,  
zuk, bai, erresiñula,  
goiz-arratsetan kantari  
berdiñik ez dezula!  
Eztarri leunáren jabe,  
beti pozik oi zaitut  
aditu:  
tiu-ri, tiu-tiu  
tiu-ri, tiu-tiu.  
Abestu, bai, bildur gabe!  
orrek poztuko gaitu.

Alargun, mindun uxoa,  
udazken-abeslari,  
Eliz-gañetik gaxoa  
Gurutzeko Jaunari...  
Eztarri leunaren jabe,  
otoitz bero bat antzo  
dirautzo :  
ruk, parru-po,  
ruk, parru-po,  
«Otoitz, bai, aspertu gabe  
ta zera zerurako».

Urte guzian berritsu,  
orma-txori lots-galdu,  
ez udan bero, ez oztik  
neguan ark ez al du!  
Eztarri leunarem jabe,  
lelo batek du bizi,  
bai, beti,  
txiu-txi, txiu-txi  
txiu-txi, txiu-txi.  
«Ekin, ekin, asper gabe;  
ez utzi utsik, ez utzi».

Baso beltz ezkutuan  
ai! ez badute jarduten  
txoritxoak ebestutzen,  
Poxpoliñenak entzuten  
ots! nork egon nai duan.

## EUZKADI'REN EDESTIA JOKATZEKO ERA

Umeen Kredoa-ta bezelatsu du abestia (ikus): *si la; sisisi la; sisisi lálala; sisisi la>*; etab. Si'ren malan dauden izkian, *cursiva'n* dijoaz Za'ren malakoak, bestelakoan.

Azkeneko ikaskizuna, itunago izan dedin, si-fa'ren ordez, *la-soVen* dago.

Igarkizun bat (*acertijo* bat) bezela jokatu bear da. Batek galde, ta guztiok erantzun. Beude erantzuleak, lefoan, galdetzalearen aúfe ta bi aldeetan, ilargierdi^antzera; alkafi eskutik elduta. Danok —galdetzale ta erantzule—r eskuiko anka-mutuñez (orpoa lufean) marka bezate erasia-ren *compás* edo ibil-neufia; eta erabili bitzate gorputza eta besoak ere, eresiaren airean, pixkatxo bat.

Galdetzaleak galdea bukatzean, danok erantzun. Erantzutean, galdetzalea geldi, bañan erantzuleak ibilia pixka bat geitu.

Erantzun bakoitza bukatzean, *Yaiki* yaifci'ren lenengo zatia abestu. Abestean, gorputza geldi. Azkeneko ikaskizuna amaitzean, *Yaiki yaiki* osorik abestu.:

Ikaskizun edo galde guztiak ume bakařarentzat askotxo ba-dira, artu, ikaskizunik aña ume, ta kanta dezatela, txandaka, bakoitzak bere zatia.

<i>Din-dunl</i>	olari, itxaelari,
Noir ote-dan?	olari, itxaslafi,
Nor ote-dan eta zein. ote-dan :	etxe-zale,
Pirene-mendi'ren oñetan,	berdin-zale
Ispani bañóTénago,	, " ,-,;,'
Eřoma baño re lenago,	eder ta maitagarif
Indo-kermau baño lenago	—Gure Ama Euzkadi.
eri	Yaiki, yaiki, euzkotafa;
eiztari,	laister dator eguna,
artzai, nekazari,	laister dator eguna.

**n**

*Din-dan!*

Nor ote-dan?  
 Nor ote-dan eta zein ote-dan :  
 oiturak alaxen izanik  
 —iñortxok .ez daki noiztanik—  
 gosari,  
 apari,  
 atsaldeko ta bazkari,  
 nagusiak eta mofoiak,  
 arrotzak, naiz etxeakoak  
 —afotza afotz dan artean—  
 guztiok zizalu batean  
 egin oi duten efia,  
 edanez guztiok katilu beretik  
 urteko sagardo befia,  
 edo ta(i)ardo zar gofia?  
 —Dri da gure Abefia.  
 Yaiki, yaiki, euzkotafa...

**HI**

*Din-dan!*

Nungo ziran?  
 Nungo ziran eta ango ziran :  
 agure buru-zuriak,  
 .etxeke Jaunak guziak  
 Efege-aufean ez lotsa—,  
 aritz baten azpian eta  
 Lege-zar-itzal bizian,  
 pakea eta bufuka,  
 onen alde ta aren aurka,  
 erabaki oi zutenak,  
 nungoak ziran, ai! batzar aiek,  
 nungoak eta zeñenak?  
 —Gure Abefiarenak.  
 Yaiki, yaiki, euzkotafa...

IV

*Din-dan!*

Nun ote-zan?  
Nun ote-zan eta an ote-zam :  
Prankotafen Karloman,  
Karlomani ta Efoldan,  
—atzapar beltzak irin zuriz—,  
mendiak gañezka gudariz,  
—ibildun basoak iduriz,  
*briz-briz*  
*briz-briz-briz—*;  
Zalduba nai alegia  
ta Iruña'ra begia,  
emen sar eta an ufa  
—aisotegian zakufa— • ;  
ai! bañan zori gaiztoan!  
gero Prantzirakoan,  
ezur-kafaska gozoan,  
Efoldan bera mila gudarikin  
Euskoak an il bait-zuan?...  
—Altabiskar'ko basoan.  
Yaiki, yaiki, euzkotafa...

V

*Din\*dan\*

Nor ote-zan?  
Nor ote-zan eta zein ote-zan :  
Luter Alemanian,  
Enri Engalandian,  
Kalbin, befiz, Prantzian  
afo zebiltzan artean,  
Iruña'ko gudatean  
*pin-pan,!*  
*pinpiti-pan!*  
inika balaz elbafi,  
bañan biotza Jaungoiko-aintza  
aundienafen egafi,

Yesu'ren Lagundia  
 asmatu zuan azpeitiar on,  
 euskaldun jator garbia?  
 —Gure Iñaki aundia.

Yaiki, yaiki, euzkotafa...

## VI

*Din-daru!*

Zer ote-dan?  
 Zer ote-dan eta a ote-dan :  
 Sorkalde ta Ameriketetan,  
 Japon'en, Pilipiñetan,  
 iragan urte luzetan,  
 Xabier, Antxieta,  
 Legazpi, Urdaneta,  
 jo ta ke, mundu-zear,  
 —Kristo'ren Legera dana bear—;  
 gañera bi Zumañaga,  
 —Bizkaitar ta Arabaña—  
 Martin,  
 Balendin,  
 Lizardi, Erkizia,  
 —Yesu'ren alde eman-beafez  
 odola eta bizia—;  
 eta gaur, jafaikiz lenari,  
 Garikoitz, Labixeri,  
 eta Befiz'ko Margari...  
 zer da, esan, guzti ori?  
 —Euzkadi mixiolari.

Yaiki, yaiki, euzkotafa...

VII

*Din-dan!*

Nor il dan?  
Nor il dan eta zein il dan :  
On baizik ainbat urtetan  
ez egiñik baztafetan,  
bañan, batetik nai-eza,  
bestetik gofoto beltza,  
emendik *zizta* miztoa,  
andikan *zazta* aiztoa,  
nun-naitik esker gaiztoa,  
izan afen  
euskotafen  
bizi eta osasuna,  
—geroztik ona itzali bait-da  
efieni alaitasuna,  
basoen edertasuna—  
din-dan!  
dingindin-dan!  
ai! daugadaren ituna!  
Nor da, baño, il zaiguna?  
—Amaren azkatasuna.

«Jeiki, jeiki, euskotaña»  
laister dator eguna (bis)  
Sorkaldetik ageri da  
argi gozo, biguna;  
aren afean, bildurduta,  
iges dijoa illuna.



## BAXAKARAN BELTXA

Agur Xabiertxo; nora zuazki  
nere seme maite-laztana?  
*Tra-lara-la, tra^lara-la.*

Morotegira joan bear det;  
agur aita et'agur ama.  
*Tra-lara-la, tm-lara-la.*

Morotegian zer galdu dezu,  
nere seme maite-laztana?  
*Tré-lara'la, tra-lara-la.*

Efege Jaunak beartzen gaitu;  
agur aita et'agur ama.  
*Tra-lara-la, tra-lara-la.*

Sorbaldan zer dezu armazar ori  
nere seme maite-laztana?  
*Tra-lara-la, trat-lara-la.*

Gudari nua; ez negar egin;  
agur aita et'agur ama.  
*Tra-lara-la, tra-lara-la.*

Aitak Donosti'ra lagunduko dizu,  
nere seme maite-laztana.  
*Tra-lara-la, tra-lara-la.*

Tren mutur-beltza txistuka dago;  
agur aita et'agur ama.  
*Tra-lara-la, trarlara-la.*

Orain ardiak nork zaituko ditu  
nere seme maite-laztana?

*Tra-lara-la, trai-lara-la.*

Lagunduko die zeruko Jaunak  
agur aita et'agur ama.

*Tra-lara-la, tra\l-lara-la.*

Eta soroak nork landtdeco ditu  
nere seme maite laztana.

*Tra-lara-la, trat-lara-la.*

Lagunduko die zeruko Jaunak  
agur aita et'agur ama.

*Tra-lara-la, trarlara-la.*

Zeruko Jaunak madarika beza  
gudarizka sortu zuana!

*Tra-lara-la, trai-lara-la.*

Baxakaran beltza ondurik ondo;  
ondu-eta goxo arana.

*Tra-lara-la, tra\l-lara-la.*

IKASTOLAKO GIMNASI-KANTA

(Doñua, Beobide'rena) (Yantaiko)

Kanta-kantari, alai,  
 kanta-kantari gogoz,  
 Ikastolara goaz,  
 Ikastolatik gatoz :  
 begiak argi-argi,  
 biotza garbi-garbi,  
 dana gera  
 alaitasun ta poz.

Nai degu jostatu,  
 nai degu kantatu;  
 gazteak jokoia  
 osagarria du.  
 Bañan, on da ikasi  
 ta gogoa ezi  
 ta Ekastolan erein  
 gaur, geroaren azi.

*Kanta-kantari...*

Beti ola bizi bagiña,  
 beti oskarbi, zeru urdiña...  
 Beti ola bizi bagiña  
 beti pil-pil odol-irakiña...  
 Bañan geroa gure da, eta  
 ez gaitezen bildur, ez gaitezen itzal  
 geroan beti garbi joka dezagun,  
 gaur joko garbian gabiltzan,

*Kanta-kantari...*

## KURPIL-JOKUA

(«Baxakaran taeltxa» taezela; ikus «Preludios Vascoos», I, 5.º)

Arin, arin beti,  
kurpil bixkorra!  
Arin, umetxuen  
laguna!  
Kurpil ariñean  
gabiltzanean,  
ariñago dua  
eguna.

Arin-arin, bai!  
Ariñago nai!  
Albait-lenen, aunditzeko  
beti-beti zai!  
Arin-arin, bai!  
Ariñago nai,  
aunditzean ama (aita) iduri  
lanean alai.

(Nexkak) Amaren arilki  
ariña iduri,  
arin, nere kurpil  
ariña!  
(Mutillak) Aitaren txirringuts  
ariña-iduri,  
arin, nere kurpil  
ariña!

Arinrarin, bai!  
Ariñago nai!  
Albait-lenen zoriona  
iristeko zai;  
Arin-arin, bai!  
Ariñago nai,  
zoriona iritxita  
beti-beti alai.

Biziaren kurpil  
bizia iduri,  
bizi, nere kurpil  
bizia!  
Itzalezko kurpil  
ixil-ixilla  
bait da gizonaren bizia.

(Bukatu gabe gelditua).

## GONAGORRI-JOKU

(Dalcroce'ren «Ronde del faldelli» bezela)

Jesus! Apoxanerea  
 gona gorri onekin!  
 Begira, zeñen poliki  
 dagon aloz oiekin.  
 Aizeak jotzen duanean,  
 ikurriña bat du iduri  
*trinka-trinketa,*  
*trinka-trinhi*  
 nere gona gorri;  
 gorontza bel-beltxa eta  
*trinkat- trinketa,*  
*trinka-trinki*  
 gorontza bel-beltxa eta  
 gona gorri.

Jesus! Au poxa nereea  
 gona gorri onekin!  
 Begira, zeñen poliki  
 dagon aloz oiekin.  
 Zelaietan lore danean  
 gona det biltzeko saski  
*trinka-trinketa,*  
*trinka-trinki*  
 nere gona gorri;  
 gorontza bel-beltxa eta  
*trirtkar trinketa,*  
*trinka-trinki*  
 gorontza bel-beltxa eta  
 gona gorri,

Jesus! Au poxa nereea  
 gpna gorri onekin!  
 Begira zeñen poliki  
 dagon aloz onekin.  
 Negarrez asten naizenean  
 gona dizut malko-zapi.  
*trinika-trinketa,*  
*trinka-trinki*  
 nere gona gorri;  
 gorontza bel-beltxa eta  
*trinka-trinketa,*  
*trinka-trinki*  
 gorontza bel-beltxa eta  
 gona gorri.

Jesus! Au poxa nereea  
 gona gorri onekin!  
 Begira, zeñen polita  
 dagon aloz oiekin!  
 Eudi bada nere bidean,  
 gona det eudi-aterki  
*trinka- trinketa,*  
*trinka-trinki*  
 nere gona gorri;  
 gorontza bel-beltxa eta  
*trinka-trinketa,*  
*trinka-trinki*  
 gorontza bel-beltxa eta  
 gona gorri.

## NEXKA-MUTIL TXINTXOAK

(Los niños buenos)

Itzak, Mildrad Summit enak Euskeratzalea, Lekuona'tar Manuel

## ARRITXU LOREA

## GOIZEKO BUSTIKETA

(Elbaño)

Dindan, din-dan bustiketa-ordu dator.

Ea, bildur-gabe! dana jator-jator!

Txirrixt etzaitezen, utzi berriketak!  
ez bait-da erortzen, takatx eserita...Utzi jaboikia kaxan txintxo-txintxo;  
bustia legortu; eta orain... kito!

## TXAKURRAK ETA KATUAK

(Plerros y gatos)

Katu txikiari  
egin palagu;  
*run-run* ta xurrunga  
entzungo dezu.—Ama : «txakurtxokin»  
nai nuke jolas.—Bai; baña ez uki  
belarri taisats.Bizkarrean eskuz  
palagu egin;  
laister da jostari  
pozik zurekin.

## NERE TXIRRINDOLAREKIN

(Mi triciclo)

Ibil eta ibiltze, nere atsegin;  
atsegiñago det txirrindolakin.

Gora ta beera, parkean-zear;  
an ez det autoen ardura bear.

An ba'det biderik; an ba'det argi,  
ama bildur gabe arkitu dedin.

## AOLKU ON

(Consejo)

Josetxo lasterka, Josetxo saltoká;  
bañan, erorita, belauna zauri.

Josetxo negarrez ; Josetxo zotinka...  
Amatxok aolku : «Uretan garbi,  
gaizta ez dedin».

## POXPOLUAK

(Cerillas)

Poxpoluz aitatzok piztutzen pipa ;  
poxpoluz amatxok sua piztutzen. •'

Txikiok, ordea, txikiak gera-ta,  
ez degu poxpolurikan ikutzen.

## ITXAS-BAZTERRA

(La playa)

Arritxuz, Loreaz, ondartzan jostatzen...

Ondarraren zeia! uraren palagu!

Amatxok umeai arren ta erregu :

ccAitaren eskutik, ez, arren, askatu!».

Aitaren eskutik igeri zebiltzan...  
«Uraren palastai bildurrik ez izan».  
Ur-palastak busti; eguzkiak legor...  
Ondartzaren eder! ondartzaren jator!

### TXÍRRISTAKAN

(Patinando)

Zazpi nexka-mutiko,  
edozein añean,  
txirrixta ta txirrixta,  
gelaren gañean...

Jela zulatu dedin  
ez dago bildurrik;  
elefante bat ere  
or dabil segurrik.

### KALEAN

(En la calle)

Kalea pasatzean  
batetik bestera,  
begira bear dezu  
alde bietara.

Semaforoak ba'du  
bere esaera :  
gorriak, gelditzeko;  
berdeak «Aurrera!».

### SUKALDEA

(La cocina)

Amak eltze-padera  
ditú sukaldean;  
nik ere, bai jolastu  
gogo dedan.ean.



ETXEKO BOTIKATEGI

(Elbotiquín)

Gaxotzen zeraneko  
eduki senda-gei;  
gaxo aundia bada,  
sendaldñari dei.

Begira, sandagairik  
eskutxoaz uki;  
zer.ta noiz bearako dan  
amak ondo daki.

ELEKTREKA

(Aparatos eléctricos)

Amak entxufatzen du  
ogi-tostadora;  
aitak entxufatuta,  
«telea» ondora...

Eskuz ukitutze eran  
entxuf eak nun-nai;  
bañan, zer gerta ere,  
nik ez ukitu nai.

## IZENA, ABIZENA, TELEFONOA

(Nombre, dirección y teléfono)

Etxetik kalerakoan  
 izan zuk beti gogoan  
 zure izen ta abizena  
 ta etxearen zuzena;  
 telefonorik izan ezkerro,  
 telefonoa urrena.

Nora-ezean erkitzenezan,  
 galde gizon urdiñari;

Gizon urdiñak —txit onegiñak—  
 laister esango amari.

## ESKALLERAK

(Las escaleras)

Eskalleratan-bera  
 ez jetxi saltoka;  
 ezta biñaka; baizik .  
 banata-banaka.

Kontu! ez, arren, igo  
 baranda-gañera,  
 erori etzaitezen  
 andik buruz-bera.

## LEIOA

(La ventana)

Leiotikan begira  
danok egongo dira;  
danontzat ba'da leku  
elkar maite badegu.

## OIN-UTSIK

(Con los pies descalzos)

Au poza! gaur jai degu :  
jolasteko eguna;  
amatxok agindu du  
gaur egingo deguna.

Zapatak erantzita,  
belazean oiñ-utsik;  
ta errekan *txipli-txapla*,  
ez bait degu gaur otzik :  
ez otzik,  
gaur oñutsik.

(Colofón del COLORIN)

Npui bat irakurtzen auiTa,  
irakurri ta irakurri;  
utzi-ta berriro artzen du  
eskuetan, ta irakurri.

Irriño bat du ezpañetan,  
irri, irri eta irri.  
—:Zer irakurtzen du aurtxoak?  
—«IPUI POLIT iaioRRna;».

## PRANTZIA'KO «JESUS S'HABILLE» BEZELA

## II

Eskalez jantzirikan,  
eskean dabil lesu.

Aberats baten etxe-  
ko atea jotzen du :

—Jaunaren izenean  
ogi-pixka bazendu...

i—Maietik sobra dana  
txakur Pinto'k jaten du.

Eskalea gose, ta  
txakur Pinto gizendu...

Amon xar baten etxe-  
ko atea jotzen du :

—Jaunaren izenean  
ogi-pixka bazendu...

—Sartu zaitetz barrura,  
dagona jango degu...

ta niaian zedukana  
zati bi egiten du...

Eta andik sei urtera  
aberatsa iltzen da ;

eta zeru ederre-  
ko atera juten da :

Atea jo, ta Pedro  
atera irteten da :

—Zu bezelakoentzat  
lekurik emen ez da.

Eta andik sei urtera  
Amon xarra iltzen da ;

eta zeru ederre-  
ko atera juten da.

Atea jo, ta Pedro  
atera irteten da :

—Atoz : zure lekua  
Jésus'ekin emen da.

Ateak zabaldu ta  
Amon xarra sartzen da ;

Zeru erdi-erdian  
eserita jartzen da...

Géroztik Amon xarra  
zeruetan antxen da.

## INFANTILIA


(Elbira Zipitria'rena)

Asmazan, asmazan,  
Donostia'ko Plazan

—arkupeak jiran-jiran—  
emen zenbat beatz diran.

**TXURI TA GORRI TA KIKIRRIKI**





## IRU ANAIAK

Aita batek iru seme zituan. Aunditu ziranean, mundurik-mundu irabazitara joateko garaia eldu zan aientzat.

Aitak etzeukan beste zer-emanik, eta bati igitaia eman zion (eutson), eta besteari katua, eta besteari oillarra.

Eta joan ziran, joan-da-joan, uurruti batera; eta soro batean gari-ebaiten ari ziran gizon batzuk. Arrizko aizkoraz ebaiten zuten garia.

Igitaia zeukanak onela esan zien (eutsoen) ebailleeri:

•—«Aizkoraz gari ébaiten? Nik ba-dut gauza egokiagoa ortarako». Eta igitaia zakutik atera, eta *ristiti-rastal* ixtanpatean bere aldiko saila ebaki zuan (eban).

Arriturik gelditu ziran ebailleak alako erre-minta egokiarekin:

•—Salgai ba'duzu, guk erosiko dugu. Zenba-tean?

—Onenbestean.

Eta mutillak dirutza ederra artu zuan (eban), bere igitaia salduta.




Joan-da-joan erri batera iritxi ziran. Errian, gizon eta emakume guztiek, saguak arrapatu eta saguak il ziarduten. Sekulako sagutea zan errian, eta ezin burutu inola ere ainbeste sagurekin.

Eta katudunak onela esan zien (eutsoen):

—Zer ari zerate (zarie) olako istillutan, errian saguak dituzutela-ta? Nik ba-dut gauza egokia-goia saguak akabatzeko.





Eta katua, zakutik atera-ta lurreratu bezain laster asi zan, saguak arrapatu eta arrapatu, arik-eta berealako batean erri guztia garbi utzi arte. Arriturik gelditu ziran erritarrak alako eize azkarrarekin:

—Salgai ba'duzu, guk erosiko dugu. Zenbateanj?


—Onenbestean.

Eta bigarren mutillak ere dirutza deerra artu zuan (eban), bere katua salduta.

Gero, joan-da-joan beste erri batera iritxi ziran arrats-beranduan. Inguruko mendixka batean gizonsail aundi bat ari zan eguzkiaren sortaldera begira, makillaz lurra jo eta lurra jo.

Eta oillardunak esan zien (eutsoen):

—Zer dala-ta makillaz lurra jo eta lurra jo, eguna argitu baiño leenago?



—Eguzkiari deika ari gera, loak artu-ta, etorri gabe gelditu ez dedin.

—«Nik ba-dut ori baiño gauza egoikiagoa, eguzkiari deitzeko». Eta oillarra, zakutik atera bezain laster, *kukurrukuka* asi zan, eta baita eguzkia agertu ere laster asko.

Arriturik gelditu ziran gizonak alako egazti arrigarriarekin:


—Salgai ba'duzu, guk erosiko dugu. Zenbaiten;?

—Onenbestean.

Irugarren mutillak ere dirutza ederra artu zuan (eban), oillarra salduta.

Gero irurak etxera biurtu ziran ondotxo aberasturik. Eta beren aitarekin ederkitxo bizi izan ziran andik aurrera.

Eta txuri ta gorri ta kikiriki... ipui au egi ba'ledi.



## PIO-PIO-JOLASA


—Pio-pio, gabirai,  
egan, egan, gure zai.


—Klo klo klo;  
ez korri!  
Nere txitak etorri!

Txitatxoak, kontu gero,  
ea ez dan gabirai...  
oillo-jantzian gezurrez  
zuék arrapatu nai.

—Klo klo klo;  
bai korri!  
Nere txitak etorri!

—^Amatxo, etorri gara;  
zu zaitugu gure zai.  
Pio-pio, pio-pio...  
egan dabil gabirai.





## XANGO

—Xango, mango,  
aurra nongo?


—Ona ba'da,, etxerako;  
gaiztoa ba'da, kanporako.

## EXENPLO

Exenplo berexi;  
nik azak egosi,  
egosi ta klik...  
Gezurra diok ik.

## XIRRIZTI

Xirrizti, mirrixti, gerrena, plat:  
olio-zopa, kikili-salda,  
urru edan edo klik!  
iki-mili-kili-klik!



## KUKURUKU



- Kukuruku!
- Zer duzu?
- Buruanmin.
- Zeiñek egin?
- Axeriak.
- Axeria non?
- Errotapean.
- Zertan?
- Artaleak biltzen.
- Artaleak zertako?
- Oilloari emateko.
- Oilloa zertako?
- Arrautz-egiteko.
- Arrautza zertako?
- Apaizari emateko.
- Apaiza zertako?
- Meza emateko.
- Meza zertako?
- Gu eta mundu guzia salbatzeko.

## KANPAI-JOLE

Kanpai-jole, kanpai-jole!  
 Zer nai duk? zer nai duk?  
 Jo iru kanpaiak; jo iru kanpaiak;  
 Din<sub>3</sub> dan, dun; din<sub>5</sub> dan<sub>3</sub> dun.

## ARRE, ARRE

—Arre, arre, mandako!  
 biar Tolosa'rako,  
 etzi Iruña'rako...  
 —Andik zer ekarriko?  
 —Zapata ta gerriko.





## MARIANA GONA-GORRI

Mariana gona-gorri,  
 aita akulluakin,  
 ama arbaztakin...  
 korri, korri!



## IKUXI-MAKUXI

Bi torre gora,  
bi leiatil,  
eulikari bat,  
lau «nola-ibil». (Idia)




Ariko zera, ariko zera;  
illabetean ezetz atera. (Aria)

Andre guri-guria;  
ba-du nai-ta guztia.  
Betí kotxean<sub>3</sub> eta  
beti dago bustia. (Mingaña)



Burua gora, eta  
gorputza zaldun;  
txapel gorria, eta  
ankak esproidun. (Oillarra)



## SAGUTXU ONA ETA IGEL GAIZTOA

Bein batean igel batek, sagutxo bat ikusi zuan ibai-ondoan, bere mutur txikia garbitzen ibai-értzeko uretan.

Igelak sagutxoa ito egin nai zuan; eta or-tarako zer asmatu? Onela asten da: —Bai aundia dala ibai au! e, sagutxo?

—Aundia da bai. Eta nola zabilta zu, ola-ko ur aunditan?

—Azkarra naizelako. Begira.

Eta igela uretan murgildu zan eta igeri egi-ten asi sagutxoaren aurrean.

—Ez al duzu igaro nai beste aldera?

—Ezj isatsa bustiko nuke.

—Neuk eramango zaitut bizkarrean.



Eta sinistu zion (eutson), sagutxoak igelari.  
 Eta igelak, sagu gaxoaren anka bere ankari ariz  
 Iotu<sub>3</sub>, eta *.plaustal* uretara bota zuen bere burua<sub>5</sub>,  
 sagutxoa itotzeko asmotan. , •


—Ay, ay! Itoko naizela!

ay., ay! Itoko naizela...!

Igelak aal zuan indar gúztia beera egiten  
 zuan., eta sagutxoak aal zuan guztia gora.

Miruak sagutxoaren garrasiak entzun zituan,  
 eta lasterka joan zan laguntzera.

—Igel petrala  
 ao-zabala:  
 sagua ito nai uan?  
 nik sartuko aut zakuan.  
 Eta esan duan bezela,  
 bi puska egin du igeía.






## PINPIRIN-PINPIRIN

Maria Birjiña  
 nexka zanean,  
 goizean lan, eta  
 arratsaldean  
 jostera juten zan;  
 eta bidean.,  
 bear bada igaro  
 larros-artean,  
 ta larros-artetik  
 igarotzean.,  
 tximeletatxoak  
 (zazpi batean)  
 egatzen zioten  
 buru-gaiñean  
*pinpirin-pinpirin*  
 koroï-antzean.




## KANTA-KANTARI



Zingun-txori, ega-luze:  
igo zaitez zerura;  
eta eman Amatxori  
eskutitz au eskura.  
Esaiozu, eskutitzak  
ba-duala erantzun<sup>^</sup>  
baiña iñork ez beza jakin  
neretzako zer dizun.

Kalean goitikan beera  
bisagutxo an doaz,  
txiru-liru, eta ttun-ttun,  
soiñua jo-ta-joaz...  
Atzetik irugarrena  
iruretan bixkorrena  
ankak arin jasoaz.





## OILLO GORRIA

Oillo gorriak<sub>3</sub> lurrean aztarka ari zala (ziar-duala),, gari-ale bat arkitu zuan:

-f^Zein etorriko da nerekin sorora, gari-ale au emteSra?<sup>4</sup>

Eta aateak:

—Nola joango naiz ni?

Eta antzarak.

—Nekatu egiten naiz ni.

Eta orduan oillo gorriak:

—Neu joango naiz sorora, ereitera.

Garia azi eta eldu zanean, Oillo gorriak berriz erei:

—Zein etorriko da nerekin, garia errotara eramatera?

Eta aateak:

—Nola joango naiz ni?

Eta antzarak:

—Nekatu egiten naiz ni.

Eta Oillo gorriak orduan:

—Neu joango naiz<sub>3</sub> errotara eramatera.

Eta garia eio zutenean eta iriña egin Oillo gorriak berriz ere:

—Zein etorriko da nerekin, maidan (azpillean), ore-egitera?

Eta aateak:

—Nola joango naiz ni?

Eta antzarak:


—^Nekatu egiten naiz ni.

Eta oillo gorriak orduan:

—Neu joango naiz, maidan<sub>3</sub> (azpillean), ore-egitera.

Eta maidan, (azpillean), ore egin zuanean, **Oillo** gorriak berriz ere:

Zein etorriko da nerekin, labean ogia erretze-  
raí?





Eta aateak:

—Nola joango naiz ni?

Eta antzarak:

—Nekatu egiten naiz ni.

Eta Oillo gorriak orduan:

—Neu joango naiz., labean erretzera.

Eta ogia labean urre-kolore, urre-kolore, erre zanean., Oillo gorriak berriz ere:

—Zein etorriko da nerekin, ogi urre-kolore ederra jatera?

Eta aateak oiuka:

—Ni<sub>3</sub> ni. Zu beti nere laguna izan zera.

Eta antzarak:

—Ni<sub>3</sub> ni. Zu eta biok, gu beti adiskide izan gera.

Baiñan Oillo gorriak orduan:

—EZ., aate. Zu nola etorriko zera?

Ez, antzara. Zu nekatu egingo zera.

Soroan, neuk erein nuan;

errotara, neronek eraman nuan;

maidan, (azpillean); neronek oretu nuan;

labean, neuk erre nuan.

Ogi ederra orain, neretzat... eta nere txita txiki-txikientzat.

## FRAILE ANTON'EN ASTOA


## FRAILE ANTON'EN ASTOA


Fraile Anton'ek  
astotxo bat du;  
ta pozik dago  
Frai Anton.

Asto-gaiñean  
basta ederra;  
basta-gaiñean  
Zapiron.

«Arre» esanda  
aurrera doa;  
«so» esan eta  
bertan lo.

Fraile Anton'ek  
astotxo bat du;  
ta pozik dago  
Frai Anton.





## SAGU ZAARRAREN ERESIA


Zortzi sagu gazte  
 zaar batekin...  
 Zenbat urte zitun  
 berak etzekin.

—Aiton: esan nola  
 isats-motz zeran...  
 Eta zarra asi zan  
 betiko eran:

«Ta olaxe zun,  
 ta olaxe zan...».  
 Sukalde apain bat;  
 ta sukaldean  
 ni antxe nenbillen  
 jan-kuxkuxean.  
 Baiñan jan-ixpi bat  
 etzan lurrean;  
 erratza ari izana  
 bait zan lanean.




Ta olaxe zun,  
 ta olaxe zan.  
 Katu beltza lotan  
 alki-gaiñean,  
 naikoa jan, eta  
 —gauza jakiña da  
 zer gertatzen dan  
 katua ba'dago  
 ase-betea:  
 sagua nagusi  
 sukala utsean.  
 Ta olaxe zun,  
 ta olaxe zan.



Antxe nenbillen ni  
 jauntxo antzean  
 nere isats ederra  
 arrasta atzean,  
 txokoak miatzen  
 egiñalean.  
 Ta olaxe zun  
 ta olaxe zan.



Erratzak azturik  
 ordu onean,  
 or begiz jotzen dut  
 txoko batean  
 gazta-pusketa bat;  
 ta bat-batean...  
 ori jakiña da  
 gure artean...  
 Ta olaxe zun<sub>3</sub>  
 ta olaxe zan.





...ortzak zorroztuta  
 zas! ezartzean,  
 zepoa zarta zan  
 nere ertzean...  
 ...geroztik isatsik  
 ez dut atzean.  
 Ta olaxe zun,  
 ta olaxe zan.

Ikasbide latza  
 jardun motxean:  
 «Laster ta azkarregi  
 gabiltzanean,  
 gerta giñezkela  
 isats-gabea».

—Eta katu beltzak?

—Esna zanean,  
 ia-ia jan ninduan  
 grauska! batean.  
 Ta olaxe zun,  
 ta olaxe zan.





## LABEZOMORROT XO

Bein batean, Labezomorrotxo'k, bere ataria garbitzen ari zala, txanpon bat arkitu zuan (eban) lurrean.

—Zer erosiko dut nik? zer erosiko? Goxoak?

—Ez; litxarreiria da.

—Urrak?

—Ez; litxarrerria da.

—Perkalezko gona?

—Bai; orixe. Ori zait (jat) neri atsegin...

Eta perkalezko gona erosi zuan, loratua.

Biamamonean, berriz ere ataria garbitzen ari zala, astotxo bat igaro zan andik:

—Labezomorrotxo: bai apain zaudela (zagozala)!

—Ondo egiña.

Ez diot (deutsat) iñori zor nere apaiña.

- Nai al duzu nerekin ezkondu?  
 —Ea, nola (zelan) kantatzen duzun?  
 —A... ru... a... ru...  
 —Ai! ez<sub>3</sub> ez; izutu egingo nauzu.  
 Oillartxo bat igaro zan biaramonean;  
 —Labezomorrotxo: bai apain zaudela!

—Ondo egiña.

Ez diot (deutsat) iñori zor  
 nere apaiña.

- Nai al-duzu ezkondu nerekin?  
 —Ea<sub>3</sub> nola (zelan) kantatzen duzun?  
 —Kukurruku! kukurruku!  
 —Ai! ez, ez; izutu egingo nauzu.  
 Eta biaramonean igaro zan, Sagutxo Etxe-  
 berri:

- Labezomorrotxo: bai apain zaudela!

—^Ondo egiña.

Ez diot (deutsat) iñori zor  
 nere apaiña.

- ^Nai al duzu nerekin ezkondu?  
 —Ea, nola (zelan) kantatzen duzun?  
 —Tzii... tzii... tzii...  
 —Ola zait atsegin neri.



Eta ezkondu ziran Sagutxo eta Labezomorrotxo.

Eta, alako batean, Labezomorrotxo'k labera joan bear izan zuan; eta ola itz-egin zion (eutsion) bere Sagutxori:

—Kontuz. Ez<sup>^</sup> gero, igo lapikoaren ertzera; barrura erori, eta ito egingo zera.

Baiñan Sagutxo igo zan lapikoaren ertzera, eta<sub>5</sub> tupust! barrura erori zan.

Labetik etorri zanean, onela dio (diño) Labezomorrotxo'k:

—Nun da nere Sagutxo Etxeberri! nun da nere Sagutxo Etxeberri?

Baiñan etzuan arkitzen; alako batean ikusi zuan lapiko-barruan<sub>3</sub> irakiten<sub>3</sub> *gal-gal-gal*.


Aren negarrak orduan!

—Ai! ai! neresagutxoa!

Ai! ai! nere sagutxoa!

Sagutxo Etxeberri  
lapikura erori;  
ta Labezomorrotxo  
negarrez Sagutxori,  
negarrez Sagutxori.





## OILLO ITXUA

Xangotik lotuta,  
an dago oillotxo,  
txitatxoak zaitzen  
antxe, bai, gaxoa.


Josi eta josi  
ari zanean,  
txitaren mantala  
josi naiean,  
txita gabiraiak  
eraman dio...

Oilloak negarrez  
onela dio:

—Txita, txita, txita,  
txita gaxoa!

Amatxo negarrez  
urtzera doa...

Negar eta negar,  
urtzen asita,  
azkenik gaxoa  
itsu geldi da.



## SAN KRISTOBAL AUNDI

Aurra lepoan-da  
ibaira joan da  
Kristobal aundi.

—Ai! Jesus txiki!  
Ez gero busti...!

Ez da, ez, bustiko,  
ezin da busti;  
eramaillea du  
Kristobal aundi.



## IGEL ARROXKOA

Igeri zebiltzan igelak uretan, eta kantarí:  
—Rak! rak! rak!

Guztien artean bat zebillen, besteak baiño aundiago izan naiean, gorputza luzatu eta luzatu...

Idi bat etorri zan alako batean, ura edatera; eta igel lagunek igel arroari onela esaten zioten:

—^Ara, ara! Zu baiño aundiagoa da ori.




Igel arroak ikusi zuan (eban), ikusi, idia be-  
ra baiño aundiagoa zala; eta<sub>3</sub> zurrut eta zurrut,  
ura edan eta ura edan asi zan, bere burua za-  
ragi bat bezela puztutzeraiño; eta orduan onela  
galdetu zien (eutsen) laguneri:


—Ba naiz, ala ez naiz idia bezain aundi?

—Ez<sub>5</sub> erantzun zioten (eutsen) lagunek; idia  
aundiagoa, idia.

Eta, zurrut eta zurrut, ura edan eta ura édan  
jarraitu zuan berriz ere; arik-eta; alako batean,  
zart! milla pusketan lertu zan arte.

Beste igelak bildurtu ziran oso<sub>3</sub> eta aiek etzu-  
ten izan nai idia bezain aundi.





## MIRUAREN JOLASA

Goazen, goazen, baratzero,  
an mirua ikustera.

Perrejilla janda  
mirua etzan da.

Janda, janda, janda.

—Atzeko Marikita!

—Zer nai duzu nagusi?

—Ilik da<sub>3</sub> ala bizi da  
miru gaizto, itsusi?

—Ilik da!

Goazen, goazen baratzero,  
an mirua ikustera.


Perrejilla janda  
mirua etzan da.

Janda, janda<sub>3</sub> janda.

—Atzeko Marikita!  
—Zer nai duzu nagusi?  
—Illik da, ala bizi da  
miru gaizto, itsusi?  
—Bizi da!

Goazen, goazen, azkar, azkar!  
Zorrotz miruak atzapar.  
Goazen, goazen, jator, jator;  
atzetik oraintxe dator.

(Aurrak aurretik, eta mirua atzetik; arik-eta nor-  
bait arrapatu arte, bere kabira eramateko).




## TXITA POLITA

Bein batean Txita Polita arizti batera joan zan ta<sub>3</sub> ezkur-ale bat erori ariztetik eta, *kaxk!* jo du buruan.

—Ene bada! •—esan zuan, zearo izutua—:  
Zerua dator goitik beera.  
Noan Erregeri esatera.

Eta ba-zijoan (zeian), joan; eta Oillo Po-  
txolo topatu zuan (eban):

—Egun on, Txita Polita;  
Nora zoaz, orren goiz jeikita?  
—Zerua dator goitik beera,  
eta Erregeri esatera...  
—Noan ni ere, zukin batera.





Eta Oillo Potxolo eta Txita Polita, joan ba-zijoazen; eta Oillar Goiar topatu zuten (eben):

—Egun on<sub>3</sub> Oillo Potxolo eta Txita Polita; nora zoazte, (zoaze) orren goiz jeikita?

—Zerua dator goitik beera, eta Erregeri esatera...

—Noan ni ere, oro batera.

Eta Oillar Goiar, Oillo Potxolo eta Txita Polita joan ba-zijoazen; eta Aate Garate topatu zuten (eben):

—Egun on, Oillar Goiar, Oillo Potxolo eta Txita Polita; nora zoazte (zoaze), orren goiz jeikita?

—Zerua dator goitik beera, eta Erregeri esatera...

—^Noan ni ere<sub>5</sub> oro batera.

Eta Aate Garate, Oillar Goiar, Oillo Potxolo eta Txita Polita, joan ba-zijoazen; eta Antzar Mantzar topatu zuten (eben):

—Egun on<sub>3</sub> Aate Garate, Oillar Goiar, Oillo Potxolo eta Txita Polita; nora zoazte (zoaze), orren goiz jeikita?

—Zerua dator goitik beera<sub>5</sub> eta Erregeri esatera...

—Noan ni ere, oro batera.

Eta Antzar Mantzar, Aate Garate, Oillar Goiar, Oillo Potxolo eta Txita Polita, joan ba-zijoazen; eta Indioillar topatu zuten (eben):

—Egun on, Antzar Mantzar, Aate Garate, Oillar Goiar, Oillo Potxolo eta Txinta Polita: nora zoazte (zoaze), orren goiz jeikita?

—Zerua dator goitik beera, eta Erregeri esatera...

—Noan ni ere, oro batera.

